

ERIZAIN AGIRIA

ERIZANEK OSASUNA DEFENDATZERA ETA ULTRAESKUIN ETA FASZISMOAREN AURKA MOBILIZATZERA EGITEN DUTE DEIALDIA

Erizainek pertsonak edozein egoeratan zaintzeko ardura duten talde profesionala osatzen dugu, haien bizitza pizteaz gain ongizate eta duintasuna ziurtatu ahal izateko. Konpromezu hau bereziki garrantzitsua da pertsona ahul eta zapalduekin eta gure ahotsak elkartzera gramatza eskuin muturrekoen, totalitarismoaren eta faxismoaren aurka ohartarazteko.

Polarizazio politikoak eta gero eta gehiagoko ekitate ezak, %1ak aberastasuna eta boterea pilatzen duela kontutan hartuz, alienazio soziala du ondorio. Eskuin muturreko politikek jendearen baldintzak hobetuko dituztela eta haien gaitzak konponduko dituztela egiaztatzen dute, baina benetan tentsioak eta gatazka sozialak areagotzen dituzte, gizartea polarizatuz, intolerantzia sustatuz, clima aldaketa baztertuz, etorkinak arbuiatuz eta berdintasuna bilatzen dugunok irrigarri utziz.

Diskurtso populistaz baliatuz, haien politika gezurtiak zaintzearen, demokraziaren, berdintasunaren, dibertsitate sozialaren, jasangarritasun ekologikoaren eta osasunerako eskubide unibertsalaren aurka daude. Masa handien lagun aurkeztu nahi dute haien burua, egiatan gutxiengo harrapakari batzuen interesak bermatu nahi dituztenean.

Erizainek oroimena dugu, eta ez dugu historian lurperaturik ziruditen proposamen politiko en berragertzea eta indartzea onartzen. Gogoan dugu iraganean mugimendu totalitarioak boterera hauteskunde demokratikoen bidez iritsi zirela, boterea irabazteko indarkeria, gorrotoa, desinformazioa eta gatazka erabiliz. Emakumeen eta pertsona disidenteen aurka egiten dute, arraza, identitate edo orientazio sexuala, estatus legala, erlijioa, etnia edo klase soziala kontu tan hartuz.

Zaintzak faxismora garamatzaten eskuin muturreko politiken aurkako antidoto gisa proposatzen dituzte erizainek. Zaintzea funtsezkoa baita gizarterako eta gainera totalitarismoari aurre egiteko, baliabideak demokratizatuz eta pertsonak ahaldunduz. Horregatik, kezka handiz ikusten dugu eskuin muturrekoaren aurrerapausuak, nazionalismoa, auto ritarismoa, gizartekontserbadurismoa, indarkeria, etsaitasuna eta desinformazioa sustatzen baititu, egunerokoa zaintza-gizarte batengandik urrunduz.

Erizainen iritziz, zainketa oinarrizko eskubide unibertsala da; eskuin muturrekoek, ordea, negozio eta pribilegio gisa ikusten duten bitartean. Gaur egun, totalitarismo eta talde ekonomikoek eskubide hori eta osasun estaldura unibertsala desagertarazi nahi dituzte. Hau larriada; izan ere, ebidentziak eta nazioarteko erakunde guztiek adierazi bezala, zainketa egokiak izatea ezinbestekoa da desberdintasunen parekatzea lortu ahal izateko, eta babesgabetasun eta ahultasun-egoeretatik babesteko, bizitza duina lortzeko segurtasuna emanez, egoera pertsonal edo soziala edozein dela ere.

Erizainek saihas daitekeen sufrimendua salatu eta zainketak proposatzen ditugu euspen gisa. Eskuin muturreko ideologia osasun-sistema publikoak suntsitzen ari da, osasun- arreta merkantilizatzen, amatasun arduratsurako eskubidea deusezten eta berdintasuna arriskuan jartzen. Erizainek pertsona guztiak zaintzeko eskubidea defendatzeko ideologia horren osasun eta gizarte politiken aurka egiten dugu. Polarizazio, indarkeria eta gorrotoaren aurrean, erizainek zaintza proposatzen dugu harresi gisa.

Erizainek pertsona eta taldeei hausnarketa sakona eskatzen diegu eskuin muturreko ideologiak nola jokatzeko duen jakiteko, osasun-estaldurako egiturak, eskubide sozialak eta pertsonen eta haien komunitateen zaintza suntsituz. Beraz, eskuin muturreko erakundeak salatzeko eta geldiarazteko ekintzetan parte hartzerantz egiten dugu deialdia, botoaz, partehartzeaz eta kontrol demokratikoaz baliatuz.

Erizainen lana eusten duten balioek ez digute aukerarik ematen ultraeskuin ideologiaren ondorengorik aurrean epel mantentzeko. Horregatik, **mobilizatzeko gure indar eta eragin guztia erabiltzera hitzematen dugu, guztiontzako osasun unibertsal, eskubide sozial eta zainketa hobekak lortzea zailtzen duen edozein ideologia geldiaraziz.**

Jean Watson. Doctora honoris causa por la Universidad Rovira i Virgili (2010)

Rosamaría Alberdi Castell. Doctora honoris causa por la Universidad de Murcia (2016)

Doris Grinspun. Doctora honoris causa por la Universidad de Lleida (2018) y por la Universidad de Burgos (2022)

Denise Gastaldo. Doctora honoris causa por la Universidad de A Coruña (2019)

María Teresa Moreno Casbas. Doctora honoris causa por la Universidad de Huelva (2023)

María Paz Mompert García. Doctora honoris causa por la Universidad de Alicante (2024)